

«Benetako
aldebikotasuna
nahi dugu; ez
dugu aritu nahi
beste edozein
erkidego
bezala»

AITOR ESTEBAN

Testua **XABIER MARTIN**
Argazkia **OSKAR MATXIN EDESA / FOKU**

Estatus berriaren akordio bat eginda ere, prozesu konplexua gainditu beharko luke gauzatu arte: hala azaldu du EAJren Euzkadi Buru Batzarreko presidente Aitor Estebanek (Bilbo, 1962), eta espektatibak hozteko mezua izan da. Hala ere, ziurtatu du eztabaidak aurrera jarraitzen duela eta ez dagoela blokeorik.

Gazako genozidioa protesta handiak eragiten ari da mundu osoan, eta baita Euskal Herrian ere. EAJk genozidioa gaitzetsi du, baina Juan Mari Aburto Bilboko alkateak esan zuen Espainiako Vueltako protestek kalte egin ziotela hiriaren izen onari. Eusterik bada orain horrelako baieztapen bati?

Baietz uste dut. Gure posizioa zehaztu nuen orain bi urte Espainiako Kongresuan, eta Alderdi Egunean berretsi: egunen batean akaso Israelek bere buruari ispiluan begiratu dio, eta lotsatu egingo da. Eskuin muturreko gobernu horrek aukera ikusi du bere helburu politikoak betetzeko; Trump etorriko zela bazekiten. Hamasen sarraskiaren ondoren, pentsatu zuten ez zela egongo geldituko zituen inor. Biktimak izatetik, erasotzaileak izatera pasatu dira. Onartezina da gertatzen ari dena, baina beste kontu bat da Bilboko etapan arriskua egon zela txirrindularientzat, eta inork nahi ez zituen istripuak gertatze-

ko. Ulengarriak dira, oso, Bilboko alkatearen hitzak. Palestinaren alde hiru orduko lanuztera deitu dute sindikatuek, urriaren 15erako. EAJk babestuko du deialdi hori?

Ez dugu babestuko. Hilaren 15ean ez dakit nola egongo den auzia, baina Hamasek egin dioten proposamena onartu ala ez, deialdi hori neurritz kanpokoa da. Batzuek pentsatuko dute igual hemen egindako horrelako ekintza batekin geldi daitekeela Gazakoa. Ba, ezin da; horrek ez du inolako eragina izango, eta guri kaltea egingo digu, gure ekonomiari. Protestak bai, baina neurritz hartu behar dira erabakiak.

Protestak bai, baina grebarik ez, orduan?

Bai, argi dago. Kaltea dakar lanuzteak; ematen du gure egunerokotasunaz ari garela eta ez Gazako herritarrenaz. Nazkatuta gaude ikusten ditugun irudiekin, baina pentsatzeak hiru orduko grebak eragina izango duela horretan... CAFek Jerusalemgo tranbiaren proiektuarekin jarraitzen du. Ondo egiten ari da? Zilegi da haren jarrera?

CAFen jarri dute fokua, bai. Guk argi dugu armekin lotura duten harreman komertzialak eten behar direla. CAFek egin behar du hausnarketa etiko; egin du, izan ere, eta helarazi du zer arrazoi dituen proiektu hori ez eteteko. Ez da tranbia bat jartzea baka-

rrik: haren mantentze lanak ere egin behar dira. CAFen barruko kontuak ez ditut ezagutzen; ez dakit enpresaren porrota ekarriko lukeen proiektua uzteak. Baina, begira, EH Bilduk Araban eskatu du Israelek harremana duten enpresak zerrendatzea, merkataritza eragozteko... Ba, agian, galdetu duten horiek ustekabea hartuko dute, ikusita lehengusuak edo anai-arrebak enpresa horietan ari direla lanean. CAFi begiratzen diogu, baina gauzak konplexuagoak dira. Nora helduko gara eragozpenekin?

Euskal Enplegu Publikoaren Legea aldatzeko bi eskaera onartu ditu Eusko Legebiltzarrak, euskararen aurkako oldarraldia geratzeko. EAJk erakunde bakoitzaren errealitatera egokitu nahi ditu hizkuntza eskaerak, eta EH Bildu, berriz, nahitaezko eskakizun orokorren aldekoa da. Badago aukerarik ados jartzeko?

Ez dakit; eragile guztiok hitz egin behar dugu. Abstentziora jo genuen EH Bilduren proposamenan, akordiorako borondatea daukagulako. Proposamen hori mutur batera doa, eta, gainera, epaitegietan jausiko litzateke. Gure gizartearen parte handi batek ez luke ulertuko. Baina ikusiko dugu zelan bideratu daitekeen egoera. Ahaleginduko gara hormak jartzen orain gertatzen ari dena amaitu dadin. Ez da erraza

izango; ez da bakarrik legea egittea; legearen interpretazioa egin daiteke gero, eta epaileen eskuetan dago hori. Fin ibili behar dugu.

Nola eragingo die negoziazioei zuen Jaurilaritzako bazkide PSE erreforma horren aurka egoteak?

Guk denekin hitz egingo dugu; ez nuke emango ziurtzat PSE erreformaren aurka egongo dela. Ikusiko dugu azkenean zein den haren jarrera.

EAJk eskuak libre ditu EH Bildurekin akordio bat egiteko?

PSEekin dugun koalizioaren historian lehen aldiz, guk bakarrik aurkeztu dugu lege erreforma, oso iritzi desberdinak ditugulako, baina horrek ez du esan nahi EH Bildurekin ados gaudela. Berriro diot: gauza bat da nola hasten den, eta bestea nola bukatzen den.

Ez zenuen espero, noski, Pradalesen «Euskadi euskaldun» hori «pin-pan-pun» bihurtuko zuela Diaz Ayusok, baina akaso haren erantzun bat bai, ezta?

Ba, ez, egia esan. Horrelako ergelkeria zetorrela asmatzea ez zen erraza. Eta haren gobernuak berretsi egin du lehendakariaren mezua hori bera zela. Andre hori horrelakoa da. Lehendakariak erantzun behar zuen Bartzelonako pasartearen ondoren.

Askotan esan duzue Espainiako politika zatarrak han geratu

behar duela, baina Ayusori zuzenean hitz egiteak ez du ematen hori lortzeko modu egokia. Beste eragileak aipatzea ez da haiek zuzenean interpelatzea. Euskadi euskalduna dela pentsatzen dugu, eta hala esaten dugu. PPK dio Pradalesek Ayuso baliatu duela bere soslai indartzeko. Hala da?

Ayusok bota duena bota izan ez balu, ez zen ezer gertatuko. Argitu ditzatela beren ideiak. Agian Ayusok behar zuen lehendakaria bere Madrilgo politikarako. «Euskadi euskaldun» horrek ez zuen indarrik, eta begira zer bota zuen. **PPekin duzuen harremana hondaturik dagoela ematen du. Tira, zubiak beti daude hor.**

Zabalik daude zubi horiek?

Beti, guztiakin behar da harremana, Voxekin salbu.

EH Bilduk gogoratu du Ayusoren PP horri esker dagoela EAJ Gipuzkoa eta Gasteiz gobernatzen. Onartuko zenituzkete orain PPren botoak gobernu horiek eratzeko?

EH Bilduk gauza asko esaten ditu, eta kontrajarriak askotan. Azken kanpainen esan zuen eskuindarren aurkako babesgarriak behar zirela, eta talde horretan sartu gintuen, PPrekin eta Voxekin batera. Orain, abertzaleei buruz aritzen dira, eskuin muturreko olatuari elkarrekin aurre egitera dei eginez. Orain abertzaleak gara eta lehen faxisten taldean geunden? Jadanik ez dakite zer esaten duten, hainbeste nahastu ondoren, koloreak eta jantziak aldiro aldatzeagatik. Gauzak garbi: Feijook kanpainen esan zuen EH Bilduren gobernuak galaraziko zituela, eta guk ez genuen ezer negoziatu PPrekin.

Boto horiek onartu zenituztela esaten dute.

Barkatu, baina nola onartu? EH Bilduk ez ditu onartzen PPren botoak gure aurka egiteko hainbat ekimenetan? Zer da botoa onartzea? Botoa eman egiten da, ez dira onartzen edo ez onartzen. Barkatu, baina ergelkeria hutsa da hori.

EITB Focusen arabera, EH Bilduk gora jarraitzen du boto asmoan, eta ezin da baztertu berriro PP erabakigarria gertatzea gobernuak eratzeko, ezta?

Baina zertaz ari gara? Udal eta foru hauteskundeak noiz izango dira? Bi urte falta dira, eta inozakeria da honi buruz aritzea. Focusena argazki bat da, eta is-

EAJko presidenteak nahiko luke urtea amaitu aurretik egitea estatus berriaren ituna, EAJ, EH Bildu eta PSEren artean; «edo hurrengo urtearen hasierarako».



«Ez dugu babestuko lanuztea; batzuek uste dute ekintza horrekin geldituko dutela Gazakoa...»

«EH Bilduk eta PPK arerio bera dute, eta diskurtso eta estrategia berarekin ari dira: gu ahultzea»

«Hemen ados jarrita ere, Konstituzionaletik ateratakoa testu bera izango al da?»

«Ez bada testu bera, zein izango da alderdien jarrera gorteetan eta gero erreferendumean?»

latzen du EH Bilduk Sumar jaten duela. Baina EAJ ere gorantz doa; eserleku bat gehiago Madrilén. Aurrekoan ere irabazletzat jo zuten EH Bildu, baina lehendakari gaia aldatuta ere, guk irabazi genituen hauteskundeak. Ikusiko dugu zer gertatzen den etorkizunean, baina guk alderdi guztiekin hitz egiten dugu, Voxekin salbu. EH Bilduk, berriz, bat egiten du PPrekin diskurtsoan, eta interes bera dauka.

Gehiago azalduko zenuke hori?
Argituko dut: PPK esaten du guk EH Bildu bezala ematen dugula botoa, eta Bilduk, berriz, abertzaleak elkarrekin aritzeaz dihardu, eskuin muturrari aurre egiteko. Gure aurka egon direnek gure jantziak jartzen dituzte, kameleoiarena eginez. Interes bera dute biek: zabaltzea EAJren eta EH Bilduren artean ez dagoela alde handirik. Eta bai, badago, eta itzela da. Ez dugu gizarte eredu bera, eta gura dugun Euskadik ez dauka zerikusirik haiek gura dutenarekin. Abertzaleak eta

euskaldunak izango gara biok, eta burujabetasuna nahi dugu, baina hortik harago, alde handiak daukagu arlo guztietan. EH Bilduk eta PPK arerio bera dute, eta estrategia berarekin ari dira: gu ahultzea. Nagusitasun politikoa eskuratzeko aurrez aurreko horren testuinguruan, bada egiterik estatus berriaren inguruko ituna? Ahaleginduko gara, baina hau ez da bakarrik EAJ eta EH Bilduren

arteko kontua. Itunik balego, arrakastatsua gerta ledin PSOE-renak lirateke boto garrantzitsuenak Madrilén. Gauza batzuk adostu ditugu, eta gauza batzuk falta dira. Eta gero, hemen ados jarrita ere, bozkatu aurreko helegite bat jarriko diote testuari Konstituzionalean. Ebazpen horretatik aterako dena izango al da hemen adostutako testu bera? Zein izango da orduan alderdi bakoitzaren

jarrera? Osorik ateraz gero, zoragarri; baina ez bada horrela? Zein izango da alderdien jarrera gorteetan eta, gero, erreferenduma egitean? Azkeneko, bozkatu egin beharko baita Euskadin. Izango al da denbora nahikoa prozesu hori egiteko Sanchezek bozetara deitu aurretik? Lehenbailehen jarri behar dugu ados hemen. Gura nuke urtea amaitu aurretik gauzak argi edu-

kitzea, eta, ezin bada, datorren urtearen hasierarako. Baina arin ibilita ere, Kongresuan egungo gehiengoa aurkituko dugu? Ezin dugu jakin.

Ohartarazi duzu EAJ ez dela egongo paktuan «benetako jautzirik» ez badago. PSEk aipatzen duen nazio aitortza sinbolikoa, ondorio juridikorik gabea alegia, bateragarria da benetako jautzia egitearekin?

Ez ditut komentatuko dauzkagun eztabaidak. Ikusiko dugu zertan geratzen den kontua.

Nazio aitortza, arbitratze sistema eta «Euskadiren presentzia nazioartean»: horiek aipatu zenituen Alderdi Egunean. Zer litzateke arbitratzea?

Benetako alde bikotasuna nahi dugu, harreman hori ez izatea beste edozein erkidegorena bezalakoa. Desadostasunak daude, nean, auzia erabakitze moduan islatu behar da hori; nork erabakitzen du? Berme batzuk behar ditugu.

Parez pareko harremanaz hitz egiten du EH Bilduk?

Estatus berriarekin ere, ez gara estatu bat izango. Parez pareko harremana legoke Europar batzunde estatu gisa, edo NBEn. Baina hori ez da gertatuko oraindik.

Erabakitze eskubidea ez zenuen aipatu Forondako ekitaldian. Nahitaezkoa da EH Bildurentzat, eta PSErentzat, berriz, onartezina. Nola askatu lokarri hori?

Eztabaiden inguruan ez naiz ariko, baina batzuk oilar moduan ibiltzen dira kanpoan, kukurruku, eta gero, barruan, oilo.

PSOEn ordezkaria Santos Cerdan zela zabaldu da. Madrilek izendatu du beste bat?

Bagabiltza eztabaidatzen. Ez dut gehiago esango horri buruz. ●

saiazgetaria
HOTELA

- XV.mendeko dorretxea
- Gela guztietan Internet
- Enpresentzako eskaintza bereziak

San Roke, 25 • 20808 GETARIA
Tel.: + 34 943-14 01 43
Faxa: 943-14 03 45



info@saiazgetaria.com
www.saiaszgetaria.com

TRADEBI
TRANSLATION
Itzultzaileak
tradebi@tradebi.com